



FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
02/06/2025



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)



FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
02/06/2025

2025EKO APIRILAREN 28AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2025eko apirilaren 28an, arratsaldeko 19:00tan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Javier Auza, Mikaela Elizalde, Iker Isiegas eta Alaia Etayo.

BERTARATU EZ DIRENAK: M^a Mar Ansorena.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Martxoaren 26ko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena

2.- Alkate ebazpenak

-2025/38 alkate ebazpena onartuz COTA, Control Tecnico Administrativo S.L enpresak aurkeztutako aurrekontua sukaldearen ekipamendua egiteko, aurrekontua hori 14.045,60 eurokoa izanik.

-2025/39 alkate ebazpena onartuz Onartzea COTA, Control Tecnico Administrativo S.L enpresak aurkeztutako aurrekontua, aurrekontutik kanpo dauden obra batzuk egiteko haien artean kanpoko zurgindegia margotu, sarreran baranda jarri eta beste, aurrekontua hori 10.238,38 eurokoa izanik.





FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
02/06/2025



FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROIZ
02/06/2025

-2025/40 alkate ebazpena onartuz Beñat Bildarraz Ormazabalek aurkeztutako zirkulazio zergaren hobari eskaera, eta onartzea aipatutako B 1416 VM matrikuladun autoaren zirkulazio zergaren hobaria %50ekoa izatea.

-2025/41 alkate ebazpena onartuz Iñaki Lopez Osinagak aurkeztutako zirkulazio zergaren hobari eskaera, eta onartzea aipatutako 5332 BDR matrikuladun autoaren zirkulazio zergaren hobaria %50ekoa izatea.

-2025/42 alkate ebazpena onartuz Berueteko 11. Poligonoko 63. lursailean 2 oilo edukitzea, KALTEGABE deklaratzeko, ekainaren 23ko 148/2003 Foru Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Pedro Jose Recondo Elizalderi jarduera kaltegarerako lizentzia ematea.

-2025/43 alkate ebazpena onartuz Markel Lopez de Vergarari obra baimena onartu Aizarotzko Erdiko Karrika 2 2D helbideko lokal eta garajeko ur eta argi hartuneak mozteko.

-2025/44 alkate ebazpena onartuz Sasturain etxean eguneko egoitza obren barruan hainbat altzari egiteko hornidura kontratua arautuko duen baldintza plegua.

-2025/45 alkate ebazpena onartuz Udabeko 1. Poligonoko 65. lursailean 30 oilo edukitzea, KALTEGABE deklaratzeko, ekainaren 23ko 148/2003 Foru Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Juan Jose Mate Lopez jarduera kaltegarerako lizentzia ematea.

-2025/46 alkate ebazpena onartuz Erbitiko 7. Poligonoko 181. lursailean 30 oilo eta uso edukitzea, KALTEGABE deklaratzeko, ekainaren 23ko 148/2003 Foru Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Iosu Osoz Anduezari jarduera kaltegarerako lizentzia ematea.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako alkate ebazpenak.

3.- Udabe eta Beramendin frontoiak egiteko xehetasun azterlanak. Hasierako onespena.

Puntu hau erreko batzarrean aztertu zen hortaz baztertua gelditzen da gai zerrendatik.

4.- 2025eko aurrekontua. Hasierako onespena.

Alkateak aipatzen du aurrekontu proposamena hainbat ogasun batzordetan aztertua izan dela. Azken aldaketa batzuk txertatu, hasierako aurrekontutik hainbat aldaketa egin dira aipatu bezala eta hau da hortaz gastu eta sarreraren orokorreko emaitza:

SARRERAK	1.467.399,00 €	1.618.345,21 €
GASTUAK	1.353.670,00 €	1.589.091,00 €
EMAITZA	113.729,00 €	29.254,21 €





FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
02/06/2025



FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROINGOZ
02/06/2025

1995/270 Foru Dekretuaren 18. Artikulua jarraituz. "onespen-erabakia bakarra izango da, eta aurrekontu orokorra osatzen duten aurrekontuak zehaztu beharko ditu. Aurrekontu orokorretako bat ere ezin izango da bereiz onartu, onespén hori onartu ondoren sortzen diren erakunde autonomoen kasuan izan ezik.

Osoko Bilkurak aurrekontu orokorrari hasierako onespén eman ondoren, gehiengo soilez, Idazkaritzan jarriko da jendaurrean, hamabost egun balioduneko epean, erakusketa hori Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta iragarki-taulan iragarri ondoren, herritarrek edo interesdunek espedienteaz aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ditzaten.

Hortaz bildutakoek aho batez onartzen dute hasiera batez 2025. Urteko aurrekontua, gastuen aurreikuspena 1.589.091 euro izanik eta erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute, 15 eguneko epean jende aurrean egon dadin aurrekontu proposamena alegazioak hartzeko aukera irekiaz.

5.- 2. Pisuko etxebizitzaren esleipena.

Alkateak azaltzen du, errentan parte hartzeko proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren, Apirilaren 10ean bildu zela espediente honen azterketa egin behar zuen epai mahaia eta aurkeztutakoaren baremazioa burutu zuela.

Aurkeztutakoak hauek izan ziren:

- 1.- Josu Puerta
- 2.- Tomax Yurramendi
- 3.- Ernesto Viguri
- 4.- Jose Ignacio Moreno
- 5.- Laura Beloqui
- 6.- Lara Marín

Azaltzen du aurkeztutakoaren artean bi baztertu zirela, alde batetik, Lara Marinek aurkeztuko eskaera epea kanpo aurkeztu zuelako, eta gainera ez zuelako dokumentazioa osaturik aurkeztu, errentaren aitorpen osoa ez zuen aurkeztu.

Bestetik Laura Beloquik aurkeztutako dokumentazioaren arabera alokairu sozilerako irizpideak ez zituen betetzen, errentaren aitorpena altuagaitz zuelako.

Hortaz aipatutako biak baztertuak gelditu ziren, aipatu bezala lehena epea kanpo eta dokumentazioa osaturik gabe aurkeztu zuelako eta bigarrenak alokairu sozialerako gehienezko sarreak gainditzen zituelako.





FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
02/06/2025

FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROIZ
02/06/2025

Hortaz aurkeztutako besteen balorazio egiten zen eta modu honetan gelditu ziren emaitzak:

Izen	Abizenak	Errolda	Puntuak	Seme-Alaba	Puntuak	25 urte gutxiago	Puntuak	25-30 urte	Puntuak	Emakumea	Puntuak	GUZTIRA
Josu	Puerta Extremera	Bai	10	Bai	10	Ez	0	Ez	0	Ez	0	20
Jose Ignacio	Moreno Gines	Ez	0	Ez	0	Ez	0	Ez	0	Ez	0	0
Ernesto	Viguri Gonzalez	Bai	10	Ez, errentan ez da agertzen	0	Ez	0	Ez	0	Ez	0	10
Tomax	Yurramendi Gil	Bai	10	Ez	0	Bai	10	Ez	0	Ez	0	20

Berdinketa izanik, Josu Puerta eta Tomax Yurramendiren artean zozketa burutu zuen epaimahaiak pleguaren 9 artikuluen arabera eta Tomax Yurramendi izan zen esleipenduna.

Hortaz epaimahaiak esleipen hau batzarrera eramaten du onartua izan dadin:

Hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

Udaleko bigarren pisuko etxebizitza Tomax Yurramendiri esleitu urteko errenta 176.68 eurokoa izanen delarik.

Adierazi esleipendunari kontratua urte baterako egingo dela eta ondoren errentadunaren egoera ekonomikoa aztertuko dela berriro eta kontratua luzatuko zaiola, alokairu sozialerako baldintzak betetzen baditu eta ez bada horrela alokairu libreko prezioa ezarriko zaiola.

Erabaki hau esleipendunari eta parte hartzaile guztiei jakinaraztea ere erabaki dute bildutakoek.

6.- Gartzarongo zaborteziaren erabilera aldatzen duen ordenantzaren aldaketa. Hasierako onespina.

Alkateak azaltzen du udalak Gartzaronen zabortezi izateko erabakia hartu zuela duela hainbat urte, Basaburuan sortzen ziren obren zaborrak bertara eramateko, beti ere obrako zaborrak. Ordenantzak ez du islatzen 2018ko urriaren 15an Gartzarongo kontzejuekin sinatutako hitzarmenaren xede nagusia dela Basaburuan egiten diren obren hondakinak eraman ahal izango direla bakarrik zabortezi.

Gainera ere tasak ez dira hainbat urtetan eguneratu eta beste zaborteziaren kobretekin direnekin alderatuz oso baxuak dira..

Hortaz proposamena da ordenantzaren aldaketa sustatu aipatutako bi zentzu horietan, alde batetik garbi gera dadin bakarrik Basaburuan sortzen diren obra hondakinak eraman ahal direla zabortezi horretara eta bestetik tasak eguneratzeko.

Hortaz bildutakoek hau kontutan hartuta eta 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazio Foru Legearen 325. Artikuluak arautzen duena jarraituz

“a) Toki-erakundearen osoko bilkuraren hasierako onespina.





FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
02/06/2025



FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROIZ
02/06/2025

b) Jendaurrean jarriko da, aldez aurretik Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta onespen-erabakiaren entitatearen iragarki-taulan iragarrita, hogeita hamar egunez gutxienez, auzotar eta interesdun legitimoek espedienteaz aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharra aurkeztu ditzaten.

c) Aurkeztutako erreklamazioak, eragozpenak edo oharra ebatzea, eta a) idatz-zatian aipatutako organoak behin betiko onartzea.

Hala ere, hasierako onarpenerako erabakia behin betikoa izango da erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik aurkeztu ez bada. Kasu horretan, ondorio juridikoak sortzeko, inguruabar hori, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu beharko da.

2. Herri-ondasunen aprobetxamenduak arautzen dituzten ordenantzak onartzeko, udalbatzako legezko kideen gehiengo osoaren aldeko bozketa beharko da.

3. Erregelamenduak eta ordenantzak aldatzeko, horiek onartzeko egin beharreko izapide berberak bete beharko dira.”, ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

Hasiera batez onartu Gartzarongo zabortearen erabilera aldatzen duen ordenantzaren aldaketa eta erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu hilabeteko epean jende aurrean egon dadin erabakia.

7.- UEMAren erabilera planaren onespena.

2025-2027 erabilera plan estrategikoa berriro behar dela aipatzen du alkateak eta horretarako UEMAko teknikariak hainbat bilera izan ditu kontzejuko alkate, zinegotzi, langile eta beste eragileekin, plan berriaren ildoak aurkezteko.

Ondoren batzarrak onartu behar du Basaburuko udalak jarraituko duen erabilera plan estrategikoa hau Plan honen helburua da euskaraz sortzea eta bertan agertzen diren onartutako hizkuntza irizpidean betetzea. Plan berrian ikusten dira udalaren ahulguneak, adibidez obra esleipen kontratuetan hizkuntza irizpidean txertatzea, aldiz beste hobekuntza batzuen artean plantilla organikoan eskatzen ziren hizkuntza profilak egonkortze prozesuarekin batera bete dira.

Hortaz bildutakoek aho batez onartzen dute UEMAk aurkeztutako 2025-2027 erabilera plan estrategikoa.

Erabaki hau UEMARA jakinaraztea agintzen dute ere bildutakoek.





FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
02/06/2025



FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROIONZ
02/06/2025

8.- Ganaderos de Navarra S. Coop-ek sustatutako iharduera baimena onartu.

Ganaderos de Navarra S. Coop elkarteak Basaburuko iharduera ekonomikoen guneko lursail bat erosi zuela gogoratzen die bildutakoei alkateak. Bertan nekazal biltegi erabilera izango duen eraikina egin nahi du eta horretarako iharduera eta obra baimena onartzeko proiektuak aurkeztu zituen. Obra baimena onartua dauka otsailaren 24ko datarekin onartutako alkate ebazpen bidez.

Honekin batera iharduera baimenaren espedientea tramitatu da. Lehenik iharduera baimen eskaera NAO-n argitaratua izan da, otsailaren 25eko 38. Aldizkariak argitaratu zen, interesdunek alegazioak jartzeko aukera irekiaz. Epe horretan ez dira aurkeztu, Gainera ere kontzeju eta mugakideei jakinarazi zaie zuzenean iharduera baimen hau tramitatzen ari zela. 20020/17 Foru Legearen eta 2022/26 Foru Dekretuaren 48. Artikuluaren arabera. Bertan ondoren zehazten dena arautzen da:

“1. Jarduera sailkaturako lizentziaren eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa osatu ondoren, jendaurrean jartzeko epea irekiko da, gutxienez hogeii egunekoa, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik, udaletxeko iragarkitaulan iragartzen denetik eta proposatutako kokalekuaren ondoko finken jabeei eta okupatzaileei pertsonalki jakinarazten zaienetik kontatzen hasita, jarduerak ukituko dituela uste dutenek egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzaten. Udalerrikonposatuetan, dagokien kontzejuei ere jakinaraziko zaie.

2. Jarduerak administrazio-baimen substantiboa behar badu, jendaurreko informazioaren izapidea baimen horren izapidearekin bat etor daiteke.

3. Informazio publikoaren izapidetik salbuetsiko dira jarduera sailkatuaren lizentzia emateko eskumena duen organoak, indarrean dauden xedapenen arabera, isilpekotzat jo dituen datuak, sustatzaileak aldeztu aurretik eskatuta.

4. Jendaurreko informazioaren izapidetan jasotako alegazioak eta oharra sustatzaileari bidaliko zaizkio, hamabost eguneko epean egoki deritzon guztia adieraz dezan.”

Jende aurreko epea bukatu denez iharduera onartzea dagokio udalari, hortaz bildutakoek aho batez 2022/26 Foru Dekretuaren 48. Artikuluaren arabera onartzen dute Ganaderos de Navarra S. Coop elkarteari iharduera baimena ematea Beramendiko iharduera ekonomikoen gunean nekazal biltegia erabilera izango duen eraikina egikaritzeko eta hala jakinaraziko zaio sustatzaileari eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

9.- Mozioak

Ez dago moziorik.

Bai aipatzen du alkateak kontutan hartuta maiatzaren 18an burutuko den errepresialatuen omenaldia, proposatzen du udaletik adierazpen instituzional bat





FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
02/06/2025



FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROIONZ
02/06/2025

egitea egun horretan irakurtzeko. Adierazpen horren ideia nagusia litzake bailarak ez zuela izan behar zen jarrera egoera horren aurrean eta errepresialatuak izan zirenen familiei barkamena eta errekonozimendua adieraztea.

Iker Isiegas zinegotziak prestatuko du testua eta beste zinegotziekin partekatuko du.

10. - Batzordeen informazioa.

Ogasun Batzordea. Mikaela Elizalde ematen du informazioa.

Maiatzaren 16an arratsaldeko 19etan egingo da 2024ko kontuen aurkezpena egingo da eta ondoren Igoako ostatuan afaria. Batzordeetan parte hartzen duten guztiak gonbidatuko dira.

Ordenantza fiskal orokorraren lanketarekin ari da batzordea, Biderkak bidalitako ordenantza proposamena aztertzen ari dira eta maiatzaren 7an bilera izango dute. Ondoren Biderkarekin bilera eskatuko dira hainbat zalantza argitzeko.

Batzordearen helburua da urte bukaerarako ordenantza orokorra onartzea eta horrekin batera ere kontribuzioarekin lotutako, ponentzia berria indarrean sartzen denerako hobariak eta beste onartuak izateko.

Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.

Ez da batzordea bildu, hurrengo batzarrean informazioa emango du maiatzean burutuko diren ekintzen inguruan, Rogaine maiatzaren 24an eta BTT martxa maiatzaren 31ean.

Euskara eta Kultura Batzordeak. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Euskaraldiaren baitan bakarrikzeta saio bat burutuko da maiatzaren 9an Joxe Aldasororekin. Bestetik Sorionekuak euskara ekimenaren baitan, pasarelen guneko zubia erabiliko da argazkia egiteko eta ondoren luntxa burutuko.

Udalarako bi kontzertu antolatuko dira, baso babeslean Gariren kontzertua uztailaren 19an eta beste kontzertu bat oraindik itxi gabe dagoena abuztuan.

Abuztuan ere pertseiden inguruko hitzaldi bat eskainiko da.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa.

Eskola garraioaren egoeraren inguruan Parlamentuan agerraldi publikoa egiteko eskaera egin da eta haien erantzunaren zai dago batzordea.

11.- Informazio orokorra. Alkateak ematen du:

- Ultzamako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateko lan babestuko langileak hasi dira lanean, belarra mozteko lanak burutzen.
- Ultzamako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateko Berdintasun Plana berritu behar denez maiatzean zehar bileran burutuko dira Amaia Zalba teknikariarekin, batzuk





FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
02/06/2025



FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROJIOZ
02/06/2025

langileei bideratuak izango dira eta besteak kargu politikoa dutenentzat bai kontzejuetako alkateentzat. Gainera ere festei begira agresio sexisten inguruko protokoloa landu nahi da eta bertan ostalarien parte hartzea interesgarria litzateke.

- Atetz, Imotz eta Basaburuko alkate eta zerbitzu anitzetako langileek bilera egin zuten, langile hauen oporrak eta baja nola kudeatuko den hitz egiteko. Guztien artean adostu zen hitzarmen bat sinatzea, ordezkapen hauek burutzeko, jakinda alde batetik langileek ordezkapena ez dituztela derrigorrez egin behar, borondatez bezala egiten dituztela haien jardunaldiaren baitan, eta bestetik premiazko lanak bakarrik ordezkatzeko direla inolaz.

- Aizarotzko kontzejua osatuko duten ordezkariekin bilera burutu zuen alkateak eta bertan onartu zuten udalak ordaindu gabe zuen 2023 eta 2024 ekarpenak ordaintzea.

- Santakarako eguneko egoitzara bisita egin du aste honetan M^a Mar Ansorenarekin. Egoitza haundiagoa da azaleran, 25 erabiltzaileentzat egina dago... baina antolaketa eta gelen egitura aldetik Basaburukoaren berdina da, tamaina kontutan hartu gabe....

Kudeaketaren inguruan ere hitz egin zuten udaleko ordezkariekin eta haien gomendioa da ez kudeaketa zuzena egitea udaletik, sortzen diren lanpostuak plantillatik at egoteko, hoberena litzateke haien arabera elkarte merkantil baten bitartez kudeatu zerbitzu hau bai eta langileen kontratazioa. Lekunberriko eguneko egoitza ikustera ere joango dira,

- Maiatzaren 24an Rogaine proba burutuko da eta zonaldeko enpresei babestea eskatu zaie. Gainera ere antolaketarako bolondresak behar dira, hornidura puntutan egoteko.

- Ehiza barrutiarekin lotuta bilera burutu zen Ingurugiro Departamentuko teknikoekin, ehiza antolamendu plan berria tramitatu behar delako. Bilera horretan gainera ere adostu zen eskatzea bai Berueteko kontzejuari bai Erantsungoari haien ehiztariei eskatzea Basaburuko ehiza barrutiko mugak ez gaingitzea. Ohikoa izaten da eta gatazkak sortu ehiza barrutiko ehiztarien artean.

12. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 20.00 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.

